

# Euskal Idazleen Elkartea: hogeita bost urte pragmatismoaren bidean

---

## 1. EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEAREN HASIERAKO SAIAKERATIK ORAINGO EGOERARA

Euskal Idazleen Elkartek ez ditu bere baitan idazle soilak biltzen, euskal idazleak baizik. Hau da, hastapenetako elkartzeko saiakeretatik hasita, euskaraz idazten dutenen kezkei nahiz beharrei erantzun nahi izan die EIEk. Ildo honetatik, EIE bera eratu aurretik, gainerako beste aurretiko bileretan ere (1968ko Ermuko zina kasu...) euskal herritarren artean haien idazkietan euskara erabiltzen dutenak elkartu nahi izan dira. Horretan, Joxe Manuel Odriozola saiakera –egileak horren zorrotz salatzen duen “euskal” hitzaren erabilera lauso bezain bidegabeari muzin eginez<sup>1</sup>, EIEk euskaraz idazten dutenak baino ez ditu biltzen berean. Honetaz argi azaltzen du Joxemiel Bidadorrek EIEren funtsa:

Euskal Idazleen Elkartea euskal idazlego oro sustengatzeko bokazioaz jaino eta garatu izan da. Beharra ez da txikia baina, premiak bultzaturik, bagoaz, gure neurri apalean, historiak utzitako jaraunspen betegabe horri erantzun nahian<sup>2</sup>.

Dena den EIErena ez da jardun honetarako lehena izan, euskal idazleek haien behar eta kezkei aurre egin ahal izateko zerbait lagungarri sortzearen asmoa zaharra baita. Euskara batuaren historian, adibidez, famatua izan zen Hendaiaiko Bilkura, 1901eko irailaren 16an, Fédération Littéraire Basque sortu zelarik Adema, Champion eta Aranaren gidaritzapean, zeinean ikusarazten zen euskaraz idazten zutenen arazoei aurre egiteko, EIErekin alderatuta arazo ber-

---

1. “Inor ez da bizi hizkuntza eta kultura jakin batetik at, eta horiek zedarrizten dioten esparrutik kanpo ez dago giza eta gizarte bizitza abstrakturik in ODRIOZOLA, Joxe Manuel. *Abertzaleak eta Euskara*. Elkar. Donostia. 2008; 73 or.

2. BIDADOR, Joxemiel “Historia apur bat egiten” in *Kalegats* 14, 4. or.

berak edo oso antzekoak izateagatik behintzat, elkartzea izan zela biderik pragmatikoena.

Torrealdaiak 1977an *Euskal idazleak gaur* argitaratu zuenean EIE sortu gabe zegoen baina liburugintzan aditua den soziologoak “taldeko lanaren premia” honela aldarrikatu zuen:

Idazle diren aldetik, profesionalki antolatu gabe daudela esan dezakegu.

Zenbait urte lehenago Ermuko zina gauzatu zen, eta bertan, Gerediaga Elkartea aitzindari, 1968ko ekainaren 28tik 30era bitartean eginiko biltzarrean “Idazleen Elkartea” sortu zen “ idazle guztiok baturik, euskera literarioaren batasunaren alde”.

Hurrengo urtean, 1969ko irailaren 6an, Baionako Euskal Idazkaritzan biltzarra ospatu zuen EIEren aurrekari horrek, non Aresti eta Txillardegiz gain Torrealdai bera agertu zen, azken hauxe idazkari moduan. Hala eta guztiz ere, hizkuntzaren helbururako saiakerak gehiago izan ziren haiek gremio-helburu pragmatikoak baino eta, euskara batua indarrean jartzeaz batera, aipatu elkartea ahulduz joan zen.

Hurrengo ahalegina 1978koa dugu. Hartantxe, Durangoko Azokaren itzalean, idazle batzuk bildu ziren betiko ideia hura martxan ezartzeko, baina helburua ez zen gauzatuko 1982ra arte. Urte hartan, uztalean, Anjel Lertxundi, Xabier Gereño eta Joxe Mari Velez de Mendizabal elkarturik, EIE juridikoki 1983ko otsailaren 28an sortu zuten, Lertxundi bera lehendakari zela. Hasieran EIEren bazkideak 93 ziren. Orduko lehendakariaren hitzetan:

(...) euskal idazleen arteko harremanak lantzeko eta idazleen beharrak asetzen saiatzeko,

Orduan sorturiko Elkarateak gaur egun, 325etik gora bazkide ditu eta bere xedea honako hau da:

- Euskal idazleen eskubide profesional eta moralak defendatzea
- Euskalgintzaren eragile aktibo eta eraginkorra izatea
- Euskal literatura zabaltzea Euskal Herri osoan zein atzerrian
- Idazleen lanaren proiektio soziala bideratzea

Joxemiel Bidador historialariak lau arotan sailkatu zuen orain arteko EIEren ibilbidea<sup>3</sup>. Hasieratik 1990era bitartean lehena, *legeztatze- eta kokatze-aro* bezala izendaturik. Garai horrek bi lehendakari ezagutu zituen, Anjel Lertxundi lehenbizikoa eta, 1985. urteaz geroztik, Velez de Mendizabal. Helburu nagusia honela definitu zuten:

---

3. BIDADOR, Joxemiel “Historia apur bat egiten” in *Kalegats* 14, 5. or.

Rodríguez, Fito: Euskal Idazleen Elkarte: hogeita bost urte pragmatismoaren bidean

(...) oinarriak eta xedeak finkatzea eta xede horiei zegozkien egitasmoak gorpuztea izan zen: euskal liburuaren legetasmoa Eusko Jaurlaritzan aurkeztea eta, horren ildo berean, idazleen eskubideen defentsarako oinarriak finkatzea eta aholkularitza juridikoa eskaintzea<sup>4</sup>.

Lertxundik, bere aldetik, hogeita bost urteko tarteak ematen duen eskarmentutik honakoa uste du:

Hainbat sektore erregularizatzea garrantzitsutzat eman zen. Argitaletxeek, sorrera garai hartan, era prekarioan lan egin behar zuten, esparru literarioak ahazten zituztelarik. Eragozpen handiak ziren eta finantza arazoak. Idazleak guztiz modu boluntarioan egiten zuen lan. Idazleok babesari nahi genuen, gure hitza eta lekua izatea<sup>5</sup>,

Joxe Mari Velez de Mendizabalek, berriz, arlo profesionalari nahiz hizkuntza arazoei kasu eginez, horrela ikusten ditu hasierako ahalegin haiek:

Prozesua luzea izan zen, kontuan izan 1968an perfilatu zen hizkuntzaren normalizazioan idazleok lagundu behar genuela eta eskubide profesionalak defendatu<sup>6</sup>.



1983. Anjel Lertxundi, Imanol Murua, Txomin Peillen eta Patri Urkizu, Elkarteak sortu eta gutxira, EIEk antolatutako Hizkuntz Gutxituen Nazioarteko Kongresuan (Argazkia: Amparo Oyarzabal. EIE Artxiboa).

4. EIEren 25. urteurrenari buruz 2008ko apirilaren 23an, Joxemiel Bidador moderatzaile zela, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean Euskal Idazleen Elkarteak eraturako jardunaldian adierazia.

5. Ibidem.

6. Ibidem.

Aro honetan gerra osteko Galeusca literatur jardunaldiak hasi ziren, 1985ean eta Bartzelonan. Euskal Herrian eginiko lehen Galeusca 1986an egin zen Donostian, eta haren ondoren hiru urtez behin ospatuz joan izan da orain arte: Bilbon, Lekeition, Gernikan, Gasteizen, Iruñean, Miarritzen...



1991ko Galeusca Iruñean izan zen. Argazkian, Bernardo Atxaga hitzaldia ematen (Argazkia: EIE Artxiboa).

Bigarren aroa, beti Bidadorren proposamenari bide emanez, 1990etik 1996rako izan zen, “corpus literarioaren garai” bezala definiturik. EIEk literatura-bera hartu bide zuen helburutzat eta, horri jarraituz, *Hegats* literatura-aldizkaria eta Euskal Idazleen Katalogoa sortu zituen. Elkarteak idazleen prestakuntzari ekin zion, gidoi-ikastaroa, literatur sarien jarraipena, edo Idazleak Ikastetxeetan deritzon egitasmoak bideratzeari, adibidez. Aro honen bukaeran “irabazi asmorik gabeko” elkarte bilakatu zen EIE, ia 170 bazkide bilduz; bazkideku ahal izateko, bestalde, lau baldintza hauetako bat bete behar zen, gutxienez: liburu baten egile izatea, liburu oso baten euskaratzaile izatea, berrogeita hamar artikulua euskaraz argitaratuak izatea, edo Elkarteko Batzar Nagusiak ohorezko kide izendatzea. Bigarren aro honetan ere bi lehendakari izan zituen EIEk, Patri Urkizu eta 1993tik aurrera Joxerra Gartzia. Azken honek Elkartearen zereginari horrela deritzo:

Gutxi irakurtzen da baina prestigioa dauka kulturak, gure agintariei galdetu beharko diegu zenbat axola zaien kultura. Elkarteak ez du bakarrik *sindikatu* modura jokatu behar, kulturagintzaren eraikuntzan eragile aktiboa beharko luke izan<sup>7</sup>.

---

7. Ibidem

Rodríguez, Fito: Euskal Idazleen Elkartea: hogeita bost urte pragmatismoaren bidean

Hirugarren aroan Andolin Eguzkitza izan zen lehendakari, 1997tik 2001era. “Gizarteratze aroa” litzateke Bidadorren hitzetan nahiz eta, sailkapen honetarako hark Edorta Jimenezen iturria aipatzen duen.

Andolin Euskal Idazleen Elkarteko lehendakari izan zen bost urteetan ahalegin berezia egin zuen idazle guztien arteko batasuna indartzeko, eta behin eta berriz aldarrikatu zuen idazleari merezi duen estatusa aitortu behar zaiola:

Euskal idazleak, salbuespenak salbuespen, ez dauka presentziarik euskal gizartean. Eta idazlearen presentzia publiko horren faltak gupil zoroa apurtzeko ahalbide guztiak mozten ditu. Ezezaguna denez, euskal idazleak ez baitu euskal merkatuan behar beste saltzen literaturaz bizi ahal izateko; ez zaizkio obrak erdaretara itzultzen eta sendotasun ekonomikoaren bideak irekitzen<sup>8</sup>.

Baina ildo beretik zioen euskal idazleak ez duela sinesten oraindik euskaldun eta idazle izatea posible denik:

Idazle kontzientzia falta zaio, oro har, idazleari, hori da nire analisisia. Beharbada, benetan beraien burua idazle gisa ikusi zuten lehenak Mirande eta Aresti izan ziren eta, ondoren, 1960ko hamarkadaren bukaera aldera idazten hasi zirenak<sup>9</sup>.



1998. Andolin Eguzkitza lehendakari zen garaian EIEk Piarres Xarritoni egindako omenaldi ekitaldia (Argazkia: EIE Artxiboa).

8. ETXEBESTE, Iratxe. “Andolin ura bezalakoa zen” in *Kalegats* 14, 14. or.

9. ETXEBESTE, Iratxe. “Andolin ura bezalakoa zen” in *Kalegats* 14, 14. or.

Hortik aurrera “kontuak aurrera” egin duelakoan zegoen, eta horren adibide lehendakari zela parte hartu zuen azken Galeusca, Lekeitiokoa:

Idazle euskaldun asko hurbildu ziren bertara, eta gehienak gazteak. Hori seinale ona da.

*Jakin*-en argitara emandako artikulua aipatu gabe ezin utzi, eta horien artetik bereziki bat. 127. zenbakikoa:

Idazleen Elkartearen ikuspegitik hiru gertakari aipatu gura nituzke: Elkartearen plan estrategikoa, lehendakariordearen izendapena eta Eusko Jaurlaritzarekin izenpeturiko egjunea.

Aurretik, ordea, honakoa izkiriatu zuen:

Hor betidanik, mundura sortu ginenetik bai behintzat, betiko uste genuen gizaldia desagertu da behingoz. Beste berba zorrotzago batzuk erabiliko banitu bizitzaren erdira heldu naizela esan beharko nuke, eta hodeiertzera heltzeko neure tarte halandaze gero eta laburragotuz doala. Eta esperantzak? Bat bai behintzat, oraindik ere bizi gara, eta gainera ez edozelan.

Garai horretan hiru ildo nagusi landu zituen elkarteak: *Idazleekin solasean* egitasmoa, EIEren ahaleginak Euskal Herri osora zabaltzea, Ipar Euskal Herria eta Nafarroa barne, eta kultur erakundeekin biltzea eta erakunde instituzionalekin harremanak lantzea. Urte hauetan, 1997an zehazki, Joanmari Torrealdairen *Euskal kultura gaur: liburuaren mundua* liburu mardula kaleratu zen, eta bertan EIEri buruzko gogoeta azaldu zuen soziologoak EIE elkarteaz idazleei galdetuta:

(...) harritu eta guzti egiten da bat idazleek zein positiboki baloratzen duten EIE ikusita; %53 dira diotenak ona edo oso ona dela EIEren lana.

Hiru garai horien ondoren, EIEk egitasmo handi bati ekin zion 2001-2004 bitartean, Tere Irastortzaren lehendakaritzapean: Plan Estrategikoa.

EIErentzat geroari buruz begiratzeko modua izan zen. Begirada luzatu eta geroa ahal izan zen bezala, behintzat, finkatzeko. Edorta Jimenezek nahiz Bidadorrek zehazturiko lau aroei Komunikazio Planaren garaiak jarraitu zien baina Elkartearen barne-arazok ere ezaugarritu zuten aro hau. Ordukoa izan zen Elkartea hainbat kidek utzi izana. Baina horrelakoak bizilege direnez aipatzearekin aski delakoan nago.

Garaikidea dugun aroa, berriz, 25. urteurrenarena, berrabiatzekoa izan daiteke baina hori geroak esango digu. Denbora aurrera doa, nahiz eta askotan konturatu ez. Horren seinale da EIEren bazkietzen lehenengoetakoak izan zirenetako asko hilda egotea: Federiko Krutwig, Juan San Martin, Agustin Zubikarai, Lurdes Iriondo, Joan Mari Lekuona, Bitoriano Gandiaga, Martin Ugalde... 1982an sortu zenetik lan handia egin du EIEk. Orain, 25. urteurreneko ekimenen karira, argazki zaharrak begiratzen hasi eta ederra da garai hartan Elkartearen sorreran parte hartu zuten idazleak bileretan-eta ikustea.

Imajina dezakegu zenbat batzar, zenbat buruhauste, zenbat komeria... idazleen elkarteak osatzeko. Hori guztia gogoan, bildu zen 2008ko urteko bazkideen Batzarra Durangon martxoaren 15ean eta "Durangoko zina" izenburua zeraman agiria irakurri zuten Anjel Lertxundik, Joxerra Gartzia, Joxe Mari Velez de Mendizabalek, aurreko agintealdietan lehendakari izandakoetako batzuk eta Fito Rodríguez oraingo lehendakariak Batzar Orokorraren barnean egindako prentsaurrekoan.

Bestalde, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegik* eta Piarres Xarritonek merezitako omenaldia jaso zuten, 25. urteurrenaren karira. Jean Luis Davantek eta Markos Zapiainek haien omenezko testuak irakurri zituzten Durangoko Plateruenean egindako bazkariaren ostean. *Txillardegik* ezin izan zuen jaso, osasun arazoak zituela medio, EIEk oparitutako euskara batuaren gaineko Baionako adierazpenaren oroigarria eta Davanten emazteak hartu zuen bere orde.

*Txillardegi* hain sakonki hunkitzen duen Unibertsoaren azkengabetasun itze-laz jabetzeko aurreneko urratsak Kopernikar iraultzak emanarazi zizkigun. Iraultza horren adierazpen metafisikoa Amsterdamen ondu zuen Descartesek. Gure iritzi eta sineste asko (errukiaren onura, abertzaletasuna, berdintasun ekonomikoaren egokitasuna...) sendi-giroak sarrarazi dizkigu gogo-bihotzetan, edo koadrilak, hedabideek,

adierazi zuen *Txillardegiri* idatzitako gorazarrean Markos Zapiainek.

Durangoko zinak, berriz, honakoa zioen:

Ermuan, duela berrogei urte, Idazleen Elkartea zenak aldarrikatutakoa: "Idazle guztiak baturik, euskara literarioaren batasunaren alde lan egin dezagun" berri nahi dugu orain eta hemen gure Euskal Idazleen Elkartearen zilar-etzteien karira. Anjel Lertxundik eta Joxe Mari Velez de Mendizabalek 1983ko otsailaren 28an legezkatutako Elkartean bazkidegoa gorantz doa zenbakietan nahiz parte hartzean eta, honez gero, idazle izatearen kontzientzia iratzarri egin da euskal testugileen artean.

Euskal Kulturaren, urteen poderioz etorritako urtemugei (Euskal Herriko Unibertsitatea, Udako Euskal Unibertsitatea, Euskara Normaltzeko legeria, EITB eta abar...) segida eman die gureak oraingo honetan eta, ospakizunez gain, gure jardunaz bilana egiteko probestu nahi dugu. Hau da, gure Elkarteak bere historian zehar pairatu behar izan dituen ezinbesteko gorabeherak gainditurik, oraingo honetan gero eta eraginkorragoa izateko hartutako deliberoa dugu, agian, lorpen handiena. Legeztatu eta gizarteratu ondoren, abagune honetan ditugun erronkei erantzuteko gure eguneroko lanak ari gara berrantolatzen eta, ondo-bidean, azpiegiturak, funtzionatzeko erak eta giza baliabideak egokiturik, kultura arloan gertatzen ari den iraultzari behar beste ihardesteko gai izango garelakoan gaude.

Horretarako, orain arte behintzat, gure Elkarteak euskal idazketa sustatzeko erakunde publikoen aldetik funtsezko laguntzak lortu baditu ere, haiek handitzen eta fintzen ibili beharko dugu, baina kasu!, kultura ezin da inoren

morroi izan eta, beraz, haien laguntzaz gain, gure arloko premiei erantzuteko prestatu beharra dago Elkarte.

“Euskal idazleen eskubide moral eta profesionalak defendatzeko” sortu zen Elkarte eta orain, ahalegin hura bideratzeko, idazlearen kontratu mota berri baten eredia lantzen lagundu behar dugu Europako esparru berrira egokitzen garen bitartean.

Asko falta zaigu oraindik benetako idazle giroa lortzeko. Elkarren arteko ezaguera eskasa gairiditzearen premia badago eta berrikuntzak behar ditugu, baina, gure ustez, bazkidegoa garaiz eta ongi iritsi da hona, hobetzeko asko eduki arren.

Badakigu, jakin ere, liburuak irakurle asko galdu dituela urte hauetan eta irakurle berriak bereganatzen, aldiz, ez dela asmatu. Gure arloko funtsezko erronka, beraz, irakurzaletasunaz behar bezalako hausnarketa egitea eta, horren arabera, estrategia berriak bideratzen laguntzea litzateke. Aipatutako ekimena ardatz, azken urteotan euskal kulturaren estrategikoki birkokatzeak aukera bideratu ahal izatea izango dugu, bada, gure helburua. Ez da guztiz erraza izango baina merezi du.

Ardatz diren helburuez gain, hots, batetik, euskal idazlea babestea dagozkion eskubide profesionalen aldetik; eta, bestetik, irakurzaletasuna sustatzea, egun, berriz, bi helburu nagusi horiei begira jarraituko du programak-eta antolatzen, aintzat hartuta programa horiek etengabeko berrikuntzak behar dituztela bazkideen eta, oro har, gizarte osoaren nahiak eta beharrianak aseko badira. Bazkideak dira EIERi balioa ematen diotenak, neurri handi batean haien bitartez eskaintzen diolako Elkarteak gizarte osoari literaturaz gozatzeko aukera. Hala ere, bi xede horiez gain baditu EIEk beste batzuk, 2001. urtean egindako hausnarketaren ondorioz sortutakoak. Plan Estrategikoa jarri zuten abian orduko arduradunek, besteak beste, Elkartearen helburuak zabaltzeko aukera eman zuena: idazleak batzea eta kideen partehartzea sendotzea, euskalgintzako eragile izatea eta euskal literaturan erreferente izatea, adibidez. Helburu horiek lortzeko ezinbestekoa da, ordea, barne-antolaketa eraginkorra lortzea; horretan ari gara orain.

Egonkortasuna lortu nahian, hain zuzen ere, baliabide guztiak Donostiako egoitzan bilduz ahalik eta prestutasun handiena erdiestea da helburua. Aurten, esate baterako, antolaturiko Lihuriko Egunak -Galeuscaren parekoa Iparraldean-, edo Donostiako Poesia Egunen ekimen berreskuratua, 1993an Donostian eta 1994an Durangon arrakastatsu egin ostean, 2007an Donostian berriro ospatu dugu eta, aurrerantzean egitasmo horrekin segitzeko asmoa dago.

Lihuriko egunak, esaterako, Bardozen iragan ziren 2008an eta hiru egunetan frantses errepublikako hizkuntza gutxituen literaturei tokia eman nahi izan zitzairen. Aspaldiko egitasmoa izanik, azkenean gauzatzea lortu zen. Baina, Estatu frantsesean lanean ari diren hizkuntza gutxituetako idazleak biltzea erronka handia zenez, oztupo asko alboratu behar izan zen horretarako. Izan



ere, Estatu frantsesean, frantsesak eremu oso zabala okupatzen duenez, hizkuntza asko bizi dira esparru horretan inolako babes legalik gabe frantses konstituzioaren bigarren artikulua Frantziaren hizkuntza ofizial bakarra frantsesa dela diolako. Europako hizkuntza gutxituen kartaren alde, frantses parlamentuan eginak izan diren urrats guztiak praktikan baztertuak izan dira aplikatzerakoan.



2008. Lihuriko Egunak antolatu zuen EIEk lehendabizikoz urtarrilean. Frantses errepublikako hizkuntza gutxituen literaturei tokia eman nahi izan zitzaien (Argazkia: EIE Artxiboa).

Lihuriko egunetan beste helburu bat zegoen. Partaide-gai guztiak errealtate horren jakinean zeuden, beraz, egin nahi zitzaien proposamena beste eremu batekoa zen, literaturari toki bat irekitzea zen helburua. Euskal Idazleen Elkartetik, Ipar Euskal Herrian bultzatu nahi zen lan-ildoaren barnean, lehen-tasun gisa, literaturen arteko elkartzea zen. Horretarako, Baionan talde bat biltzea erabaki zen. Bildu zen taldean frantses Errepublikako beste hizkuntzetako idazleekin urteetan harremanetan ibilitako idazleak zeuden, eta haiei esker helbide-zerrenda osatua zegoen mahai gainean. Arazoak gainditu behar izan

ziren. Lehenik azpiegitura, hau da, nola proposatu elkarlan bat baldintza egokietan, dirurik ez dagoelarik? Euskararen Erakunde Publikoarengana eta Euskal Kultur Erakundearengana jo zen, EIE-ren baliabide ekonomikoei laguntzeko. Diru-laguntza lortu, prestaketari lotu eta aurrera. Ezin ziren eremu guztiak hunkitu, hizkuntza gutxitu asko daudelako baina, geografikoki hurbilenak direnak gomiatuak izan ziren. Hala eta guztiz ere, ez dugu esperantza galtzen ondoko urteetan biltzar zabalago baten antolatzeke, urruneko uharteetakoak barne. Bretaniatik, Alsaziatik, Ipar Kataluniatik, Kortsikatik eta Okzitaniatik baietzak eskuratu ziren, idazleak prest zeuden guregana etortzeko. Non antolatu? Nork egingen zigun harrera adoretsua? Bardozetik etorri zitzaigun proposamena eta laguntzaren eskaintza. Bertako dantza-taldeak, txotxongilo-taldeak eta auzapezak mintegietarako gelak eskaintzen zizkiguten, harrera ofiziala egiteaz gain. Pixkanaka, urratsez urrats aitzina joan zen eta euskal idazleek parte hartzeko gomitak igorri ziren.

Hiru egunez, hogeita bost partaide izan ziren, kazetari, poeta, kontalari, bertsolari, denak idazleak. Lehen goizean elkarren ezagutza egin genuen, bakoitzak bere mundua ekarri zuen mahaiaren ingurura. Emozio handiko unea izan zen, egoera ez baita oso alaia zoko guztietan. Bakoitzak ekarri zituen bere bizipenak eta pozak. Hobeki ezagutzeko aukera izan genuen euskaldunongandik hain hurbil diren beste idazle hauek eta haiek, berriz, gure ezagutza egin zuten. Ez baita erraza idazle handien erresuman idazle txikien egoera. Okzitaniarrak indartsu etorri ziren proiektuz beteak, katalanak Hego Kataluniako laguntza aipatu zuten, Britainiakoak haserre Frantziak ez baitu inongo urratsik egiten hizkuntza gutxituetan sortzen denarekiko. Eta proiektuak aipatu ziren, itzulpenak, webgune bat, informazio-trukatzeak, hori guztia martxan ematekoa da, laguntza eskertua izanen da.

Aldarrikapen bateratua idatzi zen hiru egun horietan gertatu zena plazaratzeko eta munduari Frantziak ezagutzen ez dituen literaturek bizirik dirautela eta bide luze bat irekitzen ari direla adierazteko. Ondoko elkarretaratzearen antolatzeke okzitaniarrek proposatu zuten beren burua, denok lan horretan jarraitzeko nahia erakutsi baikenuen. Beraz, ondoko hitzordua Beziens-en izango da, egunak ez badira oraindik finkatuak ere. Elkartze historikoa izan zen, lehen urratsa egina izan da, hizkuntza gutxituen indartzearen helburua daukana.

Hegoaldean, aldiz, Galeuscak ere, bere hogeita bosgarren urteurrena ospatzearekin batera, legezko izaera bateratua eman nahi izan dio bere buruari 2008ko ekainaren hamabostean Poblet monastegian. Horrela, Euskal Idazleen Elkarteak (EIE), Galiziar Idazleen Elkarteak (AELG) eta Kataluniar Idazleen Elkarteak (AELC) GALEUSCA IDAZLEEN ELKARTEEN FEDERAZIOA sortzea deliberatu dugunez, nortasun eta erabateko gaitasun juridikoa izango du hemendik aurrera kataluniar, galiziar eta euskal idazleak ordezkatzeko, sustatzeko eta defendatzeko; bazkide dituenen ekintzak koordinatzeko, eskubide profesionalen defentsan eraginkortasun handiagoa izateko, modu bateratuan aritzeko, maila autonomikoan zein europarrean, administrazio publikoko erakundeen nahiz erakunde pribatuen aurrean, normaltasuna bultzatzeko literaturan, adierazpen eta euskarri desberdinetan, idazlearen lanbidean, eta aipatutako

hizkuntzen erabilera sozial edota sorkuntzan sustapen politikoak eragiteko, loturak bultzatzeko idazleen interesak ordezkatzan dituzten Federazio edo Elkarrekin, eta baita literatur ekoizpena bere arlo guztietan zabaltzeko eta baita komunikatzea ahalbidetzen duten enpresa edo agenteen Federazio eta Elkarrekin harremanetan jartzeko ere.



1984. Orain 25 urte Pobleten bildu ziren EIEko, AELCko eta AELGko kideak lehenengo Galeuscan (Argazkia: EIE Artxiboa).

Federazio honi esker, bada, hiru elkarteak ordezkaturik egongo dira Estatuko nahiz Europako edozein erakunderen aurrean, publikoa nahiz pribatua izan. Honek ahalbidetuko du, adibidez, Espainiako Kultura Ministerioaren aurrean hiru elkarteak ordezkaturiko dituen mintzakide bakar bat izatea, nortasun juridiko bakarra izatea eta alderdi juridikoan erabateko gaitasuna duen erakundea izatea (hitzarmenak sinatzeko, dirulaguntzak jasotzeko, idazleen lanbideari buruzko arauak negoziatzeko etab.). Aipaturiko helburu horietarako, honako jarduerak egingo ditu Federazioak: alde batetik, hizkuntza ezberdinetan eta genero eta euskarri desberdinetan egindako literatur ekoizpena zabaltzea eta sustatzea. Bestetik, gai profesionalei buruzko ikerketa- eta heziketa-programak garatzea eta azterketa monografikoak enkargatzea. Honetaz gain, biltzarrrak, mintegiak, ikastaroak, erakusketak eta beste jarduerak kolektibo batzuk antolatzea. Eta azkenik, agiriak, azterlanak eta zabalkuntza-lanak argitaratzea eta erakunde publiko nahiz pribatuetan parte hartzea.

Beraz, Federazio honek erabateko nortasuna emango dio orain arte batzar “informala” zen GALEUSCAri. Abiatzen den unetik bertatik, osatzen duten elkarteei ordezkartza emango die, nor bere burujabetzarik galdu gabe, eta orain arte heldu ezin ziren erakundeetara iristea erraztuko die. Aldi berean lagungarri izango da informazioa eskuratzeko, jarduera bateratuak bultzatzeko eta, oro har, kudeaketa ekonomiko zein administratiborako baliagarria izango dela sinetsirik gaude. Hirurogeita hamabost urte badira Espainiako estaturik gabeko hiru nazioek “Itun Hirukoitza” Katalunian iragarri zutenetik. Izan ere, duela hirurogeita bost urte, Espainiako Errepublikak gaztelera besteko kulturei eskaini zien begirune urriaz eskarmentaturik, Galeusca izena eman zion Telesforo Monzonek galego, katalan nahiz euskaldunon berariazko elkarteari, uda hartan Galiziako Santiagon partaide guztiek onartu eta sinatutako izendapenari.

Bi urte geroago, eta Eduardo Pondal poeta galegoaren jaiotzatik ehungarren urteurrenaren karira, Lauaxetak aipatu hiru hizkuntzetako idazle on arteko elkarlanerako deia zabaldu zuen.

Franco hil ondoren, hiru kulturetako idazleak Pobleteko Galeusca berreskuratuan berriro biltzen hasi zirenetik mende laurdena igaro da dagoeneko, esan bezala eta Euskal Idazleen Elkartea bere sorrera gogorarazteko aurten efemeride bera ari da ospatzen. Hantxe bildurik, Txillardegik idatzitako hau irakurri zuen Jerardo Elortza EIEko lehendakariordeak:

Zoritxarrez behin eta berriz azpimarratuko duguna: adierazpidetzat hautatzen den hizkuntzak zertzen edo zedarritzen du zein literaturari dagokion; eta ez bizilekuak edo izkribuaren xedeak berak. Unamuno idazle espainola da, eta Pio Baroja ere bai. Bide beretik, Claire Etcherelli sartrezalea idazle frantsesa da, eta James Joyce ingelesa, eta ez irlandarra.

Geurera etorrita, Raul Guerra Garrido eta Ramiro Pinilla autore espainolak dira, Atxaga, aldiz, eta Irigoien, eta Koldo Izagirre, euskal idazleak dira. Bertrand Rusell galestar idazletzat hartzea ezinezkoa da.

Mintzabideak ZERTZEN du obraren natura.

Arazoa honetan (eta ez honetan bakarrik) garbi agertzen da gure hizkuntzak zein urrun dauden normaltasunetik.

Gal-eus-ca indartzea guztiz beharrezkoa jotzen dut. Eta interes handiagoa dugu geuk euskaldunok, katalanek baino.

Oso egokitatzat jotzen dut harremana iraunkortzeko lotura-batzordea sortzea. Elkarrekiko itzulpenak, argitaraketa bikunak, eta abar. Oso ondo dena.

Elkarren berri jakin, eta mundura zabaltzea ere, guztiz beharrezkoa.



2008. Galeusca Federazioaren eratze ekitaldirako Pobleteko monasterioa hautatu zuten (Argazkia: AELC (Kataluniar Idazleen Elkartea)).

Batasun juridiko horren lehenengo emaitza Madrilen gazteleraren bali-zko diskriminazioa salatzen zen baita intelektual ezagunek kaleraturiko agiriari erantzuna eman nahian etorri zen eta, bere balio historikoagatik, jarraian dator adostutako jatorrizko testua:

Ante el discurso pretendidamente homogeneizador y centralista que subyace en el “Manifiesto por la lengua común”, la federación de asociaciones de escritores Galeusca quiere dejar constancia de lo siguiente:

1. La realidad plurilingüe que conforma y da existencia al Estado español, lejos de ser entendida como una “asimetría” o deficiencia *per se*, trata de reproducir de manera transparente una diversidad lingüística y cultural común a la mayoría de los Estados que conforman la Europa plurilingüe.
2. El gallego, el euskera y el catalán no son “inventos” recientes sino lenguas que fueron normales en sus territorios y sociedades respectivas durante cientos de años. Su desnormalización, su pérdida de usos públi-

cos, no se produjo de forma “natural”, sino por invasión de la lengua que se decretó como oficial del Estado, sin consulta ni acuerdo previo.

3. El artículo 3 de la Constitución española garantiza la presencia de esa lengua común para todos los habitantes del Estado, mediante la imposición a toda la ciudadanía del deber de conocer el castellano. Toda la ciudadanía de Galicia, el País Vasco y Cataluña asume en la práctica esa imposición, pues no hay persona que no tenga una buena competencia en castellano, independientemente de que la tengan como primera lengua o como segunda, sin que el concepto “imposición” represente un estigma negativo para los hablantes.
4. El gallego, euskera y el catalán también son lenguas oficiales en sus territorios, que es lo mismo que decir que son las lenguas propias de aproximadamente el 40% de la población del Estado español. Estos códigos lingüísticos diferentes del castellano, legítimos y en los que se reconoce el recorrido y expresividad de un pueblo y de una cultura, son instrumentos de comunicación igualmente “democrática”, herramientas de relación interpersonal útiles y necesarias para la sociedad que las sustenta.
5. El derecho al uso público, en todas las instancias, de la lengua propia está reconocido en todas las legislaciones democráticas del mundo. En ámbito europeo, hay que recordar la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias (aprobada y ratificada por el Estado español) o la Declaración Universal de Derechos Lingüísticos, aprobada por unanimidad del Congreso de los Diputados.
6. La visión anuladora que de la realidad plurilingüe del Estado español se transmite desde este manifiesto, lleva a pensar en la similitud con tesis de la etapa franquista: un Estado, una lengua, y, consecuentemente, a reforzar los planteamientos diferenciadores entre ciudadanos de primera y de segunda por razón de lengua. La competencia plurilingüe, también para los ciudadanos españoles nacidos en comunidades autónomas con una única lengua oficial, siempre será una llave que abra el mundo, que abra las fronteras del respeto por el otro desde la interpretación de una relación de equidad entre los seres humanos, independientemente de su lugar de nacimiento, de residencia o de su lengua primera.
7. El aprendizaje de lenguas, además de la propia, siempre debe ser entendido en positivo y como sinónimo de enriquecimiento del individuo, pues el aprendizaje plurilingüe no consigue sino estimular expresiva y cognitivamente a las personas. En el caso de Galiza, el País Vasco y Cataluña es imprescindible que la población sea competente en las dos lenguas oficiales, para que luego cada uno pueda decidir libremente si usa una u otra en los diferentes ámbitos y situaciones. Es decir, la doble competencia es imprescindible para garantizar la libertad lingüística.
8. Para garantizar esa utilización libre de las lenguas se precisan medidas emanadas de una política lingüística adecuada. Es decir, para garantizar los derechos que tenemos también los y las hablantes de catalán, euskera y gallego se precisan políticas lingüísticas que creen las condiciones para ejercerlos, tal y como dictó el Tribunal Constitucional en la sentencia 337/1994 cuando “avalaba un trato desigual, que no discriminatorio, para las dos lenguas oficiales en función del carácter propio de una de

ellas que hace preciso una acción normalizadora que debe, necesariamente, implicar acciones de apoyo singularizado”.

9. Las políticas lingüísticas aplicadas al ámbito educativo en las llamadas comunidades bilingües tienen como objetivo conseguir que el alumnado consiga una buena competencia en las dos lenguas oficiales, independientemente de cual fuere su lengua familiar. Para conseguir ese objetivo, es preciso desenvolver planificaciones lingüísticas que garanticen la consecución de ese objetivo y que pasan, necesariamente, por la utilización tan mayoritaria como vehicular de la lengua más desfavorecida socialmente. Esto, en vez de ir contra la libertad lingüística, es, precisamente, una actuación imprescindible para garantizar esa libertad lingüística.
10. Las escritoras y los escritores gallegos, euskaldunes y catalanes PROCLAMAMOS nuestra voluntad de seguir escribiendo en nuestras lenguas y a contribuir al proceso, inacabado, de normalización de las mismas, como derecho humano, democrático, pacífico al que no vamos a renunciar. Repudiamos enérgicamente todos los intentos de EXCLUSIÓN, que colegas escritores españoles realizan de nuestras lenguas y lamentamos que, en lugar de preocuparse por la salud del español en Puerto Rico, Costa Rica o los USA, se dediquen a combatir lo próximo y asimétricamente discriminado.

2008ko ekainaren hamabostean Pobleteko monastegian.

## 2. HIZKUNTZAREN KEZKAK AGINDUTAKOA

Joanmari Torrealdaik 1977an *Euskal idazleak gaur* argitaratu zuenean orduko idazleriari bere jardunaren zergatiak galdetu zion eta denek hizkuntzaren atxikimenduaz, euskararen alde aritzeagatik alegia, idazten zutela zioten. Hau da, garai hartan ez zen sumatzen euskal idazleen artean profesionaltasunaren aldeko inolako kezkarik. Aitzitik, ia denek militantismoagatik idazten zutela zioten.

Urte haietaz artikulu argigarria utzi digu Josemari Velez de Mendizabalek<sup>10</sup> non, Euskal Idazleen Elkartearen sorrerako urte haiek ulertzeko makina bat datu ezezagun ematen duen. Hona hemen pasarte hautatu batzuk:

Euskal Idazleen Elkarte bati itxura ematen ari zen Arana Martijarengana hurbiltzen hasi nintzenean. Euskaltzainditik ziharduen, ordurako Jose Antoniok euskararen akademian lan egiten baitzuen. Eta berau zen Elkartearen sortzeko lanetan ari ziren eragileetariko bat.

Elkarte baten gaineko ideia ez zen berria. Ezaguna den moduan, Jokin Zaitegi zenak Idazleen Etxea deitzen zuena eratu nahi izan zuen modu altruista batez, baina porrot egin zuen ahaleginetan, euskal idazleak arazo desberdin batzuek arduratzen baitziren garai hartan.

---

10. VELEZ DE MENDIZABAL, J. M.: “Jose Antonio Arana Martija eta Euskal Idazleen Elkartearen sorrera” in *Musiker* 15. Donostia 43-52. or.

### Eta aurrerago:

Iragan mendeko erdialdean jar genitzake euskal idazleak elkartzeko aurreneko ahalegin serioak. Bidegoiango Usarragan bildu zen 1955eko azaroaren 27an idazle taldetxo bat – Imanol Laspiur, Paulino Larrañaga, Bittor Kapanaga, Andoni Kaiero eta Alfontso Irigoien. Bilera hartan mami gehien hartu zuen gaia, Donostiako Julio de Urquijo Mintegiaren babesean eta Koldo Mitxelenaren zuzendaritzapean euskaltzale talde batek lanean hasteko hitza eman zuela, asteroko bilerak antolatuz, izan zen. Euskal Atlas Linguistikoa eta Azkueren Hiztegi Osoa ziren mintegiko euskaltzale haien ardurarik nagusienak.

Bi hilabete beranduago, 1956ko urtarrilaren 15ean, Eibarren bildu ziren Usarragan egondako batzuk, hitzordu berrira idazle gehiago ere azaldu zirelarik: Imanol Laspiur, Jose Antonio Eizagirre, Paulino Larrañaga, Andoni Berrueta, Jose Luis Ugarteburu, Serafin Basauri, Andoni Totorika, Margarita Murgizu, Teresa Urrestarazu, Konta eta Felisa Basauri, Pablo García de Arteaga, Juan San Martín, Evaristo Martínez de Iturrate, Elena Etxebarria eta Alfontso Irigoien. Jose Luis Alvarez Enparantzak ezin etorria azaldu zuen.

Bistan denez, bilera haietako idazleen kezkek euskararen inguruan ziren. Euskara normalizatu baten aldeko jarrera indartu nahi izan zen balizko Idazleen Elkarte baten bidez. Honela, Velez de Mendizabalek kontatzen duenaren arabera beti ere, Alfontsoaren estiloarekin jasotako hurrengo aktan ideia horiek islatzen dira. Bilera bat egin zen 1956ko martxoaren 4an, Deban, eta Jokin Zaitegi, Gabriel Aresti, Pablo García de Arteaga, Paulino Larrañaga, Andoni Berrueta, Evaristo Martínez de Iturrate eta Alfontso Irigoien agertu ziren.

Urteak pasa eta 1969ko irailaren 6an, Euskal Idazleen Elkartearen antzeko bat sortzeko biltzarra burutu bide zen Baionan non Gabriel Aresti, Jose Azurmendi, Jose Antonio Artze, Jean Erdozaincy-Etchart, Salvador Garmendia, Xabier Gereño, Daniel Landart, Amaia Lasa, Jose Luis Lizundia, Ramuntxo Kanblong, Xabier Kintana, Ibon Sarasola, Joan Mari Torrealdei, “Txillardegí” (Jose Luis Alvarez Enparantza) eta Anjel Zelaieta bildu ziren.

Sortu beharreko Elkartea legeztatzeko idazkari hautatu zuten Joan Mari Torrealdei bera eta Araudia idaztearen ardura Txillardegiren esku utzi zen.

Euskararen batasunaz, Zeruko Argiako zuzendariarekin mintzatzekotan geratu eta egin berri zen Elkartearen hurrengo bilera, 1969ko abenduaren 27an Baionan egitea deliberatu zen, non egileen eskubideetatik bakoitzak Elkarteari %1 ematea proposatu zen eta bazkideen urteko kuota 100 pezetan jartzea. Orain, bistan da, EIE ez da ordainketa-sistema hori erabiltzen baina Hegoamerikan, adibidez, antzeko sistemak proposatzen dituzte egun (egile-eskubideen zati bat egileen elkarteak finantzatzeko erabiltzea, alegia...) inperialismo kulturalari aurre egin ahal izateko<sup>11</sup>.

Elkartearen hurrengo bileretan, beti, Velez de Mendizabalek idatzitakoari jarraikiz, “Batasunaren Kutxa” izan zen onartua idazle guztiek bete zezaten.

---

11. ALVAREZ, Lillian, *Derecho de autor?*. Editorial de Ciencias Sociales. La Habana. 2006.



Koldo Mitxelena, hortaz jabetuta nonbait, idazki luze bat bidali zien Elkarteko arduradunei, Errenteriatik 1970eko martxoaren 27an, Baionara joateko ezintasuna azalduz baina erabakiarekin bat zetorrela adieraziz. Hurrengo biltzarrean, 1970eko maiatzaren 1ean Eibarren egina, hogeita hamar bat idazlek, alfabetatze-lanetan ziharduten hamabost bat irakaslek, ikastolei lotutako hiru lagunek eta irakaskuntzan ari ziren hiru maisuk izenpetu zuten “Batasunaren Kutxa”. Hortik aurrera ez omen zen gauza handirik egin 1978ra arte non, abenduaren 5ean, Durangon bilduta egoera aldaratuta zegoela baieztatu zen eta Jose Antonio Arana Martija aukeratu zen Elkarteko idazkari. Aurrerantzean, legeztapena erdiesteko, 1979ko maiatzaren 7an, Euskal Idazleen Elkartea sortzeko idazkia izenpetu zuten honako hauek, Xabier Gereñok, Jose Antonio Arana Martijak eta Juan Jose Zearretak, Azkue Bibliotekan bilduta. Gereño izendatu zuten lehendakari, Arana Martija idazkari eta Zearreta diruzain.

Gauzak, halere, ez omen ziren errazak izan. Espainiako Barne Ministerioak “interes profesionalak” eta abar, Lan Ministerioaren eskuduntza zela argudiatu zuen eta, gainera, estatutuetan aldatetak egitera behartzen zituzten. Nahiz eta dokumentazio berria 1980ko urtarrilaren 3rako igorria izan, alferrikako saiakera izan zen hura ere.

Azkenean, 1982ko otsailaren 25ean Gipuzkoako Diputazioaren Elkano aretora, Jesus Mari Lasagabaster, Arantza Urretabizkaia, Josu Landa, Jose Antonio Agirre, Iñaki Azkune, Xabier Garagorri, Luis Mari Muxika, Jose Antonio Arana Martija, Jose Antonio Loidi, Federiko Krutwig, Angel Lertxundi, Iñaki Zubizarreta, Manu Ertzilla, Pello Zabaleta, Alfontso Irigoien, Juan San Martin



1981. Zenbait idazle, tartean Koldo Mitxelena, literatur lehiaketa ezagun bat antolatzen (Argazkia: EIE Artxiboa).

eta Jose Mari Velez de Mendizabal idazleak agertu ziren Idazleen Elkarteaz aritzeko.

Federiko Krutwigek txosten bat bidali zuen Elkartearen asmoaz, behin eta berriz Elkarteak erakunde profesionala izan behar zuela argudiatuz. Bildutakoen artean Elkarteak Euskaltzaindiaren babesetik kanpo egon behar zuenaren iritzia zen zabalduena.

Hortik aurrera, arestian aipatu bezala, 1982ko uztailaren 30ean, Euskal Idazleen Elkartea sortzeko agiria izenpetu zuten Angel Lertxundik, Xabier Gereñok eta Velez de Mendizabalek eta Estatuaren Buletin Ofizialean argitaratu zen 1983ko urtarrilaren 26an.

Hamabost urte beranduago, ordea, Torrealdairen *Euskal kultura gaur: liburuaren mundua* liburu mardula kaleratu zenean, euskal idazlearen kontzientzia profesionala abian zegoen hizkuntzarekiko motibazioak mantendu arren, nahiz eta 2007an, EIEk eginiko barne-inkesta batean, egungo idazleek, Elkarteak “euskalgintzan eragile izateari” ez diote berebiziko garrantzirik ematen, eta aldiz, egile-eskubideen kudeaketari, literaturaren sustapenari eta idazleen gizarte-laguntzari munta handiagoa ematen diote. Dударik gabe euskal letren esparruan aritzen diren eragileek kezka aldatuz doaz.

Espainiako trantsizio politikoaren garaian, esaterako, Konstituzioari buruzko erreferenduma gauzatu aurretik (1977an) eta Katalanerazko Kulturaren Kongresua Mallorkan bildu zelarik, Associació d'Escriptors en Llengua Catalana eratzeari ekin zioten hango idazleek, besteak beste, haien hizkuntzaren alde idazten zutenak babesteko, hau da, katalanera erabiltzen zuten idazle katalanak. Berehala gaztelera darabilten hango idazleek beren Asociación Colegiada de Escritores Catalanes ere sortu zuten garai bertsuan, euskaldunon artean, bistan da, gertatu ez dena.

Edozein modutara, Associació d'Escriptors en Llengua Catalanak irekitako bideari ekin genion euskaldunok 1982an eta, ordutik hona, haiekin batera ibili gara Galeuscan, CEDROko bileretan edota, idazle on eskubideak defendatzen, beste hainbat ekimenetan adeitsu bezain bateraturik.

Honen karira, iazko udazkenean, Associació d'Escriptors en Llengua Catalanak haren hogeita hamargarren urteurrena ospatu zuenean, jakina, bere gonbidatua izan zen EIE, 2007ko azaroaren 29an Bartzelonako Casa Fusterren egin zen ekitaldian.

Ospakizunarekin batera Associació d'Escriptors en Llengua Catalanak jakin izan zuen haren historia egungo gizartera eramaten eta gaurkotze-bideari ekin zioten bazkide zaharrak berreskuratuz edota egungo arazo berriei (idazle eta editoreen arteko hitzarmen berriak, irakurzaletasunaren birmoldaketa etab...) egokituz.

Bide horretatik ari da aurten EIE bere hogeita bosgarren urtemuga ospatzen, zeren, goian esan bezala, gizartearekin bat, idazleen beharrak eta kezka alda-

tuz baitoaz nahiz eta, Associació d'Escriptors en Llengua Catalanaren kasuak ongi adierazten duen moduan, sorkuntzarako hautatutako hizkuntza normalizatu gabe egoteak Elkartearen zeregin guztiak baldintzatu egiten dituen.

### 3. HISTORIA LAGUN

Gutenbergen asmakizunak indarra hartu ahala idazkiak eskuz kopiatu beharrean liburuak eskuratzea merke bezain arrunt bihurtzen joan zen. Liburugintza babestuko zuen legea, bada, argitaratzaileek eskuratu zuten beren alde. Honela, Erresuma Batuan Ana Erregina zela, kaleratu zen *copyright*-a 1710ean. Ameriketako Estatu batuetan, berriz, kopia eginez, 1790ean onartu zuten *Federal Copyright Act* delakoa, argitaldarien alde beti ere.

Artean, idazlea, gainerako sortzaileak bezala, artisau gisa besterik ez zen hartzen eta Erregetzaren, nobleziaren edota Elizaren menpeko langilea soilik izaten zen.

Frantziako Iraultza gertatu zenean, baina, erabateko gizarte-eraldaketak ekarri zituen, sortzaileen askatasuna eta, era bertsuan, birkokatzearen premia. Musikariek eta margolariek, idazleek bezain beste, ezin izan zuten iraultza aurretik jende printzipalak emaniko babesaren kontura bizi eta haien diru-iturriak finkatzearen alde "egile-eskubideak" aldarrikatzen hasi ziren. Abagune hartan kaleratu zuen Denis Diderotek bere "Liburugintzari buruzko gutunak" idazlana 1763an<sup>12</sup>.

Anglosaxoien ikuspuntuan (*copyright*-a) ez bezala, legeak, enpresaria (argitaratzailea) ez ezik sortzailea aterpetu behar duela defendatzen du Diderotek. Hau da, bere aburuz, gerizatu beharreko gaia ez du kopia soila izan behar, egilea bera baizik. Planteamendu moderno hau eztabaida sakonen iturri izan zen. Izan ere, pribilegioaren aurka eta berdintasunaren alde altxaturiko Iraultzak pribilegiotzat jotzen zuen hura eskubidetzat baino eta ezin zuen, beraz, onartu. Horrelako ustea zuten, esaterako, Turgotek eta Condorcetek, azken honek honako hau zioen<sup>13</sup>:

Kasu honetan, gainerakoetan bezala, pribilegioek ez dute laguntzen gizarte-ekimena eta eraginkortasuna, bakar batzuen esku uzten baitute sorkuntza eta, gainera, zergek ekoizitakoa zamatu egiten dutenez, kanpoko produktuak bertakoak baino merkeagoak izango dira.

Diderot liburu-saltzaileen aldeko legean oinarritzen zen (bere garaian "pribilegioak" deitu izan zitzairen) idazlea babesteko baina argi asko bereizten zuen lurraren edota beste zerbait materialaren jabegoa eta egile-eskubideak ("soroak eta liburuak ezin dira alderatu") baina Condorceten ustetan "pribi-

---

12. DIDEROT, Denis. "Lettres sur le commerce de la librairie" in *Oeuvres complètes*. VIII. liburukian. Hermann Paris. 1976.

13. CONDORCET, Marquise *Oeuvres complètes*.. M.J.A. Caritat. Paris. 1847.

legio guztiak gainerako herritarrentzat kaltegarriak dira berez...” hura ez zen onargarria.

Diderotek, idazki bakoitza singularra den neurrian berau sortu duenarena izan behar duela ezinbestean uste zuen, eta honela argudiatzen zuen<sup>14</sup>:

Gizakiak duen berezkoena, sentimenduek sortutakoa, sortzaileari ez badagokio, zeini dagokio, bada..?

Condorcetek, ostera, ideiak azaltzerakoan, adierazpideek ez zutela inolako garrantzirik ihardesten zion eta ideiak, ustez, denonak lirateke eta, gainera, pribatizatu ezinezkoak dira.

Argi dago. Condorcetentzat jabego intelektualak gehiengoaren interesekin talka egiten bazuen ere, Diderotentzat funtsezko eskubide onartua izan behar zuen. Orduko legeria, nekez, bi jarrera hauek biltzen saiatu zen egile-eskubideak onartuz alde batetik eta haiek, denboran bederen, mugatuz bestetik<sup>15</sup>.

Dena dela, begi-bistakoa da bien arteko kontraesan teorikoak ebatsi gabe segitu zuela, eta hori Fichte polemikan sartu arte izan zen gutxienez. Idazle alemanak ez zuen onartu Condorceten argudioa (“ideiak, orokorrak eta denonak direla eta ez dutela jaberik”), bere ustez, bikoizkeria faltsuan oinarrituta zegoelako. Haren aburuz, sorkuntza bakoitzak modu bateratuan eskaintzen ditu ideien adierazpenak eta adierazitakoa da, argi eta garbi, norbanakoarena dena eta aitortu beharrekoa, hain zuzen ere<sup>16</sup>:

Ezin da inor edozein gogamenez behar bezala jabetu haren forma aldatu gabe. Ezinbesteko eraldaketa hau, beraz, bakoitzaren jabego propioa izango da betiko.

Esan beharrik ez dago adierazpenerako egin beharreko eraldaketa hori hizkuntzarena ere badela eta, ondorioz, sorkuntzarako aukeratzen den hizkuntza bakoitzari bere egile eskubideak aitortu behar zaizkiola.

Horretan oinarriturik adostu zen Suitzan (Bernan) “Egileak babesteko nazio-arteko legea” 1886an. Hura moldatua izan zen Berlinen (Alemanian) 1908an argazkilaritzari nahiz zinemari ere ezartzeko. Erroman (Italian) 1928an uhinen bidez zabaltzeko eskubidea egileari onartu zitzaion.

Handik aurrera mundu-mailan idazlearen babeserako legeak egon badaudela esan litekeen arren, haien interesen kudeaketa, horretarako toki bakoitzean eratutako elkarteen esku geratu da. Euskal Idazleen Elkartek, besteak beste, badu hortxe, edukia, lan-eremua.

---

14. DIDEROT, Denis. “Lettres sur le commerce de la librairie” in *Oeuvres complètes*. VIII. liburukian. Hermann Paris. 1976. 75 or.

15. PFISTER, Laurent “L’auteur, propriétaire de son oeuvre?” Doktorego Tesia in R. Shumann Unibertsitatean. Estrasburgo. 1999.

16. FICHTE, Johann G. Beweis der Unrechtmaässigkeit der Büchernadrucks. 1791.

#### 4. EGIN BEHARRAK

Egilearen eskubideak defendatzeko eta jabego intelektualala aldarrikatzeko Euskal Idazleen Elkartearen antzeko erakundeek daramaten jarduna, askotan, estatuak dituen ogasun-zergen bilketa modukoarekin parekatu nahi izan dira era simple bezain maltzurrez.

Izan ere, zentzu txarreko ohiko erkatze horiek kultura garatzeko ezinbestekoak diren lege-azpiegiturak ez dituzte aintzat hartzen eta, ustez, kultura, luxua edota erakunde politikoaren nahiz merkatuaren menpeko lana izan behar duela pentsatzen omen dute.

EIEn, adibidez, *Idazleak ikastetxeetan* programak arrakasta izan du sortu zenetik.

Programan parte hartzen duten guztiei onurak ekartzen dizkie. Programa horren arduradunari, EI Eri; programa diruz laguntzen duenari, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari; eta egitasmoan zuzenean parte hartzen dutenei: ikasleei ez ezik, irakasleei eta idazleei ere. Eskola-orduan liburua lantzen dute ikasleek irakasleen laguntzarekin, eta, hartara, idazlea ikastetxera joaten denerako landuta izaten dute liburua. Irakurzaletasuna sustatzeko programa aparta da *Idazleak ikastetxeetan*. 70 bat bazkidek, 420 ikastetxek eta 12.000 ikaslek hartzen dute parte urtero. Hori Euskal Autonomia Erkidegoan. Iaztik *Idazleak eskoletan* programa abian da Ipar Euskal Herrian, EEPren diru-laguntzarekin. Nafarroan ere egin izan dira hainbat saiakera, baina ez dute oraingoz aurrera egin, eta horixe izango da aurrerantzean Elkartearen erronka ildo horretan: Nafarroako Gobernuarekin akordiora heltzea.

*Idazleekin solasean* edo *Literatur jarduerak* izenekoa da Elkartearen beste ardatzetako bat. *Idazleak ikastetxeetan* programan oinarrituta, Andolin Eguzkitza lehendakari zen garaian sortu zen, egitasmoa ikastetxeetatik gizarte osora zabalduz. Bi programa horiei esker, zazpiehun saiotik gora egiten dira urtean zehar Euskal Herriko ikastetxe, kultur etxe, liburutegi, euskaltegi eta abarretan: horrek esan nahi du egunean bi idazle dabiltzala hara eta hona euskal literatura lantzen. Argitalpenetan, kalitateko aldizkaria da *Hegats* eta bi irratsaioak ere nabarmenduko nituzke: *Testuketan* eta *Irakurrieran*, Gipuzkoan eta Bizkaian egiten direnak, hurrenez hurren.

Goian aipatu bezala, idazletza, idazketa eta egile-eskubidearen defentsarako aferak ezin dira ulertu gainerako askatasun borroketatik at (adierazpen-askatasuna, prentsarena, askatasun politikoak etab...) eta arazo juridikoa bada ere, kultura aske baten garapenerako funtsezko gaia dugu. Areago, gurea bezalako kultura gutxitu batentzat.

Izan ere, mota guztietako laguntzaz gain eta diskriminazio positibotik aparte (ez dut nik esango euskaraz egiten denak haien beharrik ez duenik...) eskubideaz ari garelarik jabego intelektualaren aurkako jarrerak kultur onuraren ezeztapena dakarrela bistan da eta, harekin batera, ez da ari balizko pribilegio baten aurka jotzen, mendeetan zehar kultur langileek eskuraturiko nazioarteko zuzenbidearen kontra baizik.

Globalizazio-garaiari gaude, non informatikak, merkatuak eta teknologiak agintzen duten, baina, Fichtek zioen moduan, “Ezin da inor edozein gogamez behar bezala jabetu haren forma aldatu gabe”. Horixe baita ezagutzaren ardatza. Eta ezagueraren gizartea informazio-gizartea soilik ez denez, egile-eskubideak baztertzeko saiakerak onartezinak dira eta Euskal Idazleen Elkartea bezalako erakundeak behar dira horri ekiteko.

Informazioa askea eta denona behar duela izan ukazina den bezala, ezaguerako eskaintzak, kulturazkoak, sorkuntzak, dagozkionari zor zaizkio edo, bestela, kultur gabeziara joango gara azkar asko. Kultura ez baita hezkuntza-maila ezta jakinduria soilak ere, herri ahaleginen esparrua baizik eta, gurean, euskal kulturari, idazketak duen munta, eskubideez babestu beharrezko jarduna dugu.

Gure hizkuntzaren antzeko egoeran idatzi behar izan duen Milan Kunderak argi utzi zuen Kafka ez zela txekierazko literaturaren idazlea, alemanarena baizik, eta idazlea bere idazkietatik banaezina dela<sup>17</sup>... egile-eskubideak defendatuz eta euskal literatura sustatuz, bada, kultura gabeko garaioan eta kultura gutxituaren eremuan bereziki, sorkuntza estali nahi duena kenduz eta esparrua argituz segitzeko ahalegina egingo du, duela hogeita bost urtetik orain arte bezala aurrerantzean ere, Euskal Idazleen Elkartean, kolpe kolpe, lerroz lerroz...

*Fito Rodríguez*

---

17. KUNDERA. M. *Le Rideau. Essai en sept parties*. Galimard. Paris. 2005.